



DEBAGOIENENKO ENPLEGU PLANA

INFORMAZIORAKO TXOSTENA

PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA

***“GAZTEAK PREST LANERAKO
DEBAGOIENEAN”***

2013ko MARTXOA

PROIEKTUAREN DATUAK

Proiektuaren sustatzaile eta kudeatzailea: Debagoieneko Mankomunitatea

Lan-eremua: Jarraian proposatzen den proiektua Debagoiena eskualdean burutuko da, eta bertako edozein herritan erroldatutako gazte langabeei (20-30 urte bitartekoak) zuzenduta dago.

Partehartzaileak: 10 langabetu

HELBURUAK

- Langabe dauden pertsonak, bereziki gazteak, lanerako prestakuntza bidez ikasitakoan sakondu eta benetako lan eremuetan praktikatzea, esperientzia faltagatik lan merkatuan lekua lortzeko aurkitzen dituzten zailtasun gehigarriak gainditzeko laguntzeko.
- Debagoiengan lanbide heziketako eskaintzan aurkitzen ez den espezialitatean prestakuntza bat eskaini.
- Udalen hainbat egitasmo ezohikoak burutzea ahalbideratu, bereziki hiri eta landa eremuen mantenu jasangarriaren arloan.

Sortuko diren lanpostuei buruz zera esan dezakegu; batetik bi irakasleak/talde buruak egongo lirarteke. Mankomunitateak zuzenean kontratatuko ditu.

EGITASMOAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Krisialdi denboran gazteen langabeziak %80an igo da eta arazoa gero eta larriagoa da lan merkatuan aukerak ez daudelako eta gazteen prestaketa askotan egokia ez delako.

Bestetik, Debagoiengan ez da, gaur egun, eraikuntzan edo eraikinen mantenu arloan irakaskuntza arauturik eskaintzen, ez behintzat hasierako mailetan.

Proposatzen den proiektua oinarrizko prestaketa bat daukaten gazteei zuzendua dago, adibidez Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetan aritu direnak. Gazte hauek lanbide heziketako oinarrizko maila hartu dute baina oraindik ez daukate lan merkaturatzeko behar duten esperientzia.

Proiektuan guztira 12 langabetuk parte hartuko dute, batetik bi profesional irakasle eta ekipo buru gisa arituko direnak. Bi profesional horiek eraikinak eta ekipamenduak birgaitzeko espezialitate baten edo bitan arituak izango dira (Elektrizitatea, iturgintza, arotzeria, igeltserotza). Bestetik, 10 langabetu gaztek parte zuzena hartuko dute ikasle-praktikatzaile gisa.

Proiektuak bilatzen duena zera da, daukaten prestaketa osatzea eta erakunde publikoek proposaturiko lan praktikoak burutzea.

Proiektuak 6 hilabeteko prestaketa eta praktiketako egitaraua jasotzen du. Batetik eraikin eta instalazioen mantenuan eta berritzean prestakuntza osagarri bat

aurreikusten da. Prestaketa programa honek hiru hilabeteko iraupena izango du, batez ere tailerreko prestakuntza eta praktikak jasotzen ditu. Ondoren, eskualdeko erakunde publikoek (Mankomunitateak eta Udalek) proposaturiko eraikin zein instalazioen mantenua egingo dituzte beste hiru hilabetez praktika eran eta lehenengo hiru hilabetetan izandako irakasleen agindura egongo dira.

Prestakuntzan mantenuko arlo ezberdinak landuko dira; besteak beste, iturgintza, elektrizitatea, arotzeria, margolaritza eta igeltserotza. Praktikak egiteko bi talde egingo dira arduradun bana eta bost langile gaztez osatutakoak.

Mankomunitateak edo eskualdeko udalek proposaturiko lanak egingo dituzte, batez ere, hiri eta landa esparruen mantenu jasangarriarekin lotutako lanak burutzeko.

Programa honek, lanerako prestakuntza programa baten ondoren, bertan ikasitakoa praktikara eramatea eskainiko lioke langabeari, lan erreala eginez.

Praktikaldiak iraun bitartean, hiru hilabetez, ikasleak 480€ko/Hileko beka edo diru laguntza bat jasoko luke, laguntza-poltsa gisara, epe horretan oinarritzko sostengu ekonomikoa izan dezan, Praktiketako denboran, eguneko dedikazioa 6 ordukoa izango litzateke gehienez.

PARTEHARTZAILEAK

Programa hau zuzenduko litzateke lehenetariko lan esperientzien beharrea aurkitzen diren 20-30 urte bitarteko gazte langabeei, aldeztu aurretik eraikuntza edo mantenu arloei buruzko prestakuntza profesionalen bat burututa daukatenak, edo arlo horietan lan esperientzi konkretua izandakoak. Kolektibo honek zaila du lan esperientziak bereganatzea oraingo lan merkatu orokorraren egoeran eta ondorioz langabezian kronifikatzeko arriskuan daude.

Partehartzaileak Debagoieneko edozein udalerrian errolatutako gazteak izango lirateke.

BURUTUKO DIREN LANEN IZAERA

Praktikaldietan burutuko liratekeen lanak, Udalen ardurapekoak izanik, hiri mantenu lan arruntetik apartekoak, eta jasangarritasunaren edo birgaitasunaren klabearen planteatutakoak izango lirateke. Adibide gisa:

- *Debagoieneko bidezidorren garbiketa eta mantenua.*
- *Eraikuntza publikoen mantenu zein birgaitzea.*

Debagoieneko Udal guztiei lanak proposatzeko aukera emango zaie.

Debagoieneko Garapen Agentziaren ardura izango da lanen aukeraketa egitea.

Lan horietan erabiliko diren materialak, lana proposaturiko erakundeak ordaindu beharko ditu.

EGUTEGIA

Hasierako data: Prestakuntza: Maiatzaren 2a Praktiak: Irailaren 2a

Bukaerako data: Prestakuntza: Uztailaren 30a Praktiak: Azaroaren 30